

Bertso eskolen lan tresna



Ixiar Eizagirre *Bertsoeskola.eus* webgunearen koordinatzailea atarian nabegatzen. MAIALEN ANDRES / FOKU [Tamaina handiagoan ikusi](#)

Argi du Ixiar Eizagirre Bertsozale Elkarteko transmisio eragileak: «Bertso eskolak oso garrantzitsuak dira bertsolaritzaren osasunerako». Horri tiraka eta «behar» bati erantzunez, *Bertsoeskola.eus* webgunea sortu du Bertsozale Elkartek. Eizagirre ibili da koordinazio lanetan, eta azaldu du beharrezkotzat jotutela zituzten baliabideak «indartu» eta «eskura jartzea».

Bertso eskolei zuzendutako ataria da plataforma; horien saretzean eragin nahi du, eta bi funtzio nagusi betetzen ditu: alde batetik, bertso eskoletan asteroko talde dinamikan baliatzeko interesgarriak edo baliagarriak izan daitezkeen materialak jartzen ditu eskura. Bestetik, berriz, bertso eskolek antolatzen dituzten egitasmoei oihartzuna ematea da asmoa, edota asteroko jardunean haientzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak eta albisteak ikusgai jartzea.

Azken urteotan materialgintzan «lanketa» handia egiten ari direla azpimarratu du Eizagirrek, eta horren garrantzia nabarmendu du: «Ezinbestekoa da materialgintzan lanean aritzea. Bertso eskoletan irakasleek egiten duten lanari oinarri, helduleku edo makulu bat jartzea da asmoa. Materiala eskaintzen diegu, eta asko laguntzen du horrek».

Bertso eskoletako oinarrizko jarduna bat-batekoa izan ohi da, eta, nagusiki, hor erabiltzen diren elementuak biltzen ditu atariak. Lau atal nagusitan banatzen da webgunea: Gaitegia, Doinutegia, Errimategia eta Hasiberriak.

Gaitegian, plazan jarri diren 725 gaietatik tira ahal dute bertso eskoletako kideek. Hala, bat-bateko saio bat gidatzeko bertso eskoletarako egokienak izan daitezkeenak hautatu eta bildu dituzte: «Gai egokia jartzea, esanguratsua eta ondo formulatua, ez da erraza. Zaku zabala dago Gaitegian, eta hortik tira dezakete irakasleek. Kantatu eta gero, gainera, kontrastatu ahal dute bertsolariek nola heldu zioten saio hartan gai horri».

Gaiak multzokatzea ere erabaki dute. Horrela, ofizio motaren arabera banatzeaz gain, lau multzo nagusitan sailkatu dituzte: Plaza, Sariketak, Betaurreko Morez eta Perlak. Betaurreko Morez atala sortzeak duen garrantzia azpimarratu du Eizagirrek: «Genero perspektiba oso kontuan edukitzea eskatzen duten gaiak daude bertan, nahiz eta genero perspektiba tematika guztietan eduki beharko genukeen presente. Gai guztiak dira feminismitik heltzeko modukoak, baina oso gai markatuak edo bereziki irristakorrak izan daitezkeenak jarri ditugu hor».

Doinutegiari dagokionez, berriz, plazan egun erabiltzen diren 425 doinu batzen dira. «Arriskua dago betiko hamar doinuetan bueltaka ibiltzeko, eta ondo egoten da doinu klaseetan, neurrietan eta erregistrotan zabaltzea», azaldu du Eizagirrek.

Bestalde, EHUko Ixa taldeak egokitutako Errimategia dago, eta, nahi den hitza bilatuta, haren amaierarekin bat datozen berben zerrenda erakusten du. Azkenik, Hasiberriak atalean, bertsoan bat-batean lehenengo urratsak egiten ari direnentzat teknikak lantzeko fitxak daude. Batez ere haurrentzat direla argitu du Eizagirrek, baina denborarekin helduentzat ere sortzeko asmoa dutela azaldu du.

Memoria bizi

Dokumentatutako ondare zabala dago bertsolaritzan, eta «harribitxiak» jasotzeko espazioa ere badu atariak: «Guretzat gogoangarriak izan daitezkeen bertsoaldiak ekarriko ditugu, transmisio horri begira. Lehengo edo gaurko bertso ale aukeratuak izango dira, bertso eskoletan dabilzan haur, gazte zein helduek gozatzeko eta hortik ikasteko». Horretarako, Ganbara eta Bertso Jarriak atalak sortu dituzte.

Bertso eskolen lan tresna ez ezik, horien topaleku ere izan nahi du webguneak. Hala, bertso eskola bakoitzak bere egitekoaren berri eman, eta gainerakoena ezagutzeko aukera izango du: «Guretzat oso garrantzitsua da funtzio hori ere izatea. Bertso eskola bakoitzak bere berri eman ahal izango du, eta, edozein egitasmo antolatzen duelarik, horri zabalkundea eman ahalko dio».

Iaz, ikastetxeei begira, *Bertsoikasgela.eus* webgunea sortu zuten, eta bestelako edukiak lantzeko aukera ematen die atari berriak: «Bertso eskolek beste webgune baten beharra zeukaleta ohartu ginen. Bertso eskoletako gazte eta helduei zuzenduta dago atari hau, eta leku gehiago du umoreak. Hitzen tonua ere ezberdina da, eta inkorrektioek leku handiagoa dute».

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

[Izan BERRI](#)Alaguna

Gaiak

Albiste gehiago



[Munduko aberatsak txiro irudikatu ditu artista batek, adimen artifizia erabilia](#)

[Edu Lartzanguren](#)

Besteak beste, Donald Trump, Bill Gates, Mark Zuckerberg, Jeff Bezos eta Elon Musk Indiako txabola auzoko biztanle gisa irudikatu ditu Gokul Pillai sortzaileak.



[«Jazz musika ez dago zertan ulertu beharrik; sentituta nahikoa da»](#)

[Enekoitz Telleria Sarriegi](#)

'Victor de Diego on Trane, the music of John Coltrane' da musikari bilbotarraren azken proiektua.

Coltrane handiari egindako omenaldia: «Gorputz osoa astintzen dit; sekulako inpaktua eragin zidan ariman».



Zortzi garro, eta hamaika galdera

Enekoitz Telleria Sarriegi

Galiziako enpresa batek munduko lehen olagarro etxaldea ireki asmo du Kanarietan. Zientzialariek animalia horren zikloa ixtea lortu dutenez, eskariari aurre egiteko modua ikusi dute horrela. Elkarte ekologistek diote «izugarrikeria bat» dela.



«Baliabide gutxirekin ere saio handiak egin daitezke»

Itsaso Jauregi

Hamaika telebista kateko 'Geltokia' programa aurkezten du Ganboak. Elikadura burujabetzari eta ekonomia sozialari buruzko saio bat da, eta errezeta batekin biribiltzen dute.

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoan.



Jone Bastida Alzuru